GARRILLA-JULIO
11
Egubaztena - Miercoles

Bilbao, 1934

Euzkadi

ARPIDE-SANEURRIJA
...ao'kua... ... 6,00 Irko. iru ilez
Bilbao'atazkua 7,50 » »
Idazki-Itunmena 62,00 » urtez
Atzarrijetakuak 100,00 » »

Beldayen itunduba

XXII urtia || Idazkolea ta Banakolea: Correo, 17, 1.º || 234 Idazkutxa || 17.810 Urrutizkiña || 6.735 zenbakija

Egunekua

Uribe'tar Koldobika

Atzo, Kistobal deunaren eguna ixan zan, burdibiltzañen jaya.

Eta burdibiltzayak edo "txopeŕak" esaten dautsenak, euren Zaindarija'ren jaya zala-ta, jan-tokijetan eta abaŕ batu ziran eta jan-edanakaz eta abaŕ, Zaindarija'ren eguna ospatu.

"Txopeŕoik", oŕen alai ebiltzan aŕtian, Koldobika'gaxuak ixan eban erijotza gogoŕaz gomutau nintzan, eta aren gogo-aĺdez otoyak-otoi egiŕen asi.

Geruago, baŕiz, "txopeŕak" euren Zaindarija'ren eguna ospatuteko dauken era bakanatzaz gomutetan asi nintzan, eta era baŕagaŕi oŕetzaz eragoten.

Egunero sendijen batera negaŕa eruateko ain aŕisku aundijan ibili biaŕ diran "txopeŕak", euren Zaindarija'ren eguna ospatuteko jan-edanetan ibiĺteko gogua zelan ixan ete-leikien uleŕtu-eziñik nebilan, ba.

Done bat Zaindaritzat aŕtzen danian, Zaindaritzat aŕtu ixan dan doniaren jaya, bere irudija aurkitzen dan txadonara elduta, Zaindarija'ri otoi-egiŕeko ixan biaŕ litzake, ta otoi-bidez zoritxaŕ-bidietatik gaizkatuteko laguntasuna eskatuteko.

Norbera zainduteko autetsi ixan dan Zaindarija'ren jaya ospatutia, orixe ixango litzake. Eta ez, asko ta asko ibili oi -diran lez jan-edanetan eta enparauko ganora bako joĺasetan ibiĺtia.

Azkenengo era onetara guŕtuten dan Zaindarija'gandik, laguntza aundirik ezin itxaron leike.

Eta Zaindarija'ri biaŕ yaken lotsarik ez ixatetik etoŕi oi-dira gero, sendijetara negaŕa ta naigabia eruaten dabezan zoritxaŕak.

Onetariko sendi atsekabetu bat, Uribe eta Ugalde'taŕ Koldobika gastiaren uste bako erijotzeak negaŕez laga daben sendi jeĺtzalia da.

Guraso atsekabetu oŕei, euren poza ta itxaropena ixan yaken seme edeŕa, zaindari barik dabiltzazan "txoper" zentzungion ariñeketan ibili biaŕak erail dautse, ba, ta geyago besaŕkatuko eztaben eran erail be.

卐 卐 卐

Koldobika gastetxuba, etxeko gurasuak ez-eze, auzokuak be maĺe ixateko lakoxe mutila zan, baŕiz.

Jeltzalia, ta ixan zan zolija zalako, txuntxuna ta txistuba joten beriala ikasi ebazan.

Gero, baŕiz, danbolinderu gaste arek joten eban soñu aĺayak, eŕi osua alaŕuten eban.

Alaŕasun aretatik, gastedi baŕija jayo zan, eta amasei mutil-moŕoskoko ezpatadantzari aldra edeŕa soŕtu.

Amasei mutil-moŕoskoko ezpatadantzari-aldrako txistularija, Koldobika begikua ixan zan.

Ezpatadantzari gastiok, euren txistularija alan ganora barik iĺda ikustian, luŕ-jota geratu dira, baso-ziaŕ dabiĺala oñaztaŕijak jota iĺoztuta geratzen dan artzañaren jabola bako artaldiaren antzian, nora jo eztakijela; ¡gaxuak!

Euren bijotzetako samin eta gusti be, baña, auŕian iĺotzik euken zuzendarijaren ondotik etziran uŕundu, eduŕa bera baxen zurijak ziran janzkijakaz jayeganekotuta, euren txistulari kutunaren azkenengo atzeden-lekurańo, gorpu-atze-ziaŕ legundu baño.

Ain asko maĺe ixan eben Koldobika txistuĺari trebiari, aŕain-gurdibil ankeŕak suziŕuta iĺoiztu eutsan soin iĺotza gordetako kutxea be, zuri-zurija egin eutsen, baĺa kutxa-ganian imiñiŕa eruateko burestuna be.

Koldobika'ren gogua be, zuri-zurija zan ba, aren soñuban dantzan egiŕen eben ama sei ezpatadantzarijen praka ta arkondarak baxen zurija. Beraz, il-kutxea ta ganerako burestuna be, zurijak ixan biaŕ.

Goyan, bego, Koldobika gaxua. Biŕaŕtian, guk, otoi egin dagijogun.

Jaupari barrijak

Atzo amaĺuge laga geban arluari jaŕaŕubaz, igazi dan igandian Begoña'ko karmeldaŕ lekaidien txadonan jaupariŕu ziran jaupari baŕijen ixenak gauŕ imiñiko doguz.

Lenengo imiñiko doguzan amabijok, karmeldaŕak doguz; amairugaŕena, buruñurduna, edo kaputxiñua.

Ona emen euren lekaide-ixenak: Ama Sortzez Garbija'ren Lander Aba; Deikundia'ren Jagoba Aba; Justa deunaren Sebasten Aba; Karmeĺ'go Gizkarbia'ren Saturnin Aba; Loyola'taŕ Iñaki deunaren Mikel Aba; Jon Ugutzarija'ren Jakinda Aba; Dunixi deunaren Serapin Aba; Mikel deunaren Pantzeska Aba; Jasokundea'ren Eustaki Aba; Sendi Deuna'ren Jon Aba; Ikuŕtona'ren Jon Gurutz Aba; Sendi Deuna'ren Gin Aba, eta Narkis Aba buruñurduna.

Onixek ixan ziran igazi dan igandian jaupariŕu ziran lekaide aguŕgaŕijak.

Zarautz'en bazteŕtuta daguan Gemos'taŕ Palgida Gongotzañak onetsi ebazan eurok.

Jaupaltza txikijak be ixan ziran: Teresatxu deunaren Peli; Soŕtzez Garbia'ren Jon Joseba ta Terese deunaren Baxili anayak doguz oneik.

Zorijonak dopaltseguez oroi, ta Jauna'ren otsein on-onak ixan dagixantzat, otoi-bidez Goikua'gana zuzendu gadixan, Josu-Kisto'ren ordezko zintzuen biaŕixana iñoz baño geyago ontxe dogu-ta.

Bederatziurrenera

Karmeĺ'go Ama Neskutza'ren bederatziuŕenera egunian baño egunian notin geyago dabiltzala esan leike, goxeko bost eta erdijetatik asiŕa auŕera uaŕtuten dan notiñen saŕtu-urtena, azken bakua dala diruditŕa.

Jaunaŕtziak be alantxe dira: azken bakuak. Seiretako euzkel-txonitza ta bederatziuŕenera be, notiñak-notin elduten dira. Eta au guretzat, euzkerearen beŕbizkundiaren begira gago-zanentzat, pozkaŕija da.

¡Zorijonekuak, Jaun-Goikua'k emondako izkuntzea ontzat aŕtu, ta Bere Aintza geyagorako erabili darabilenak!

URIBIŔAFTE'TAŔ IBON.

Alemani'ko politika - otsak

Alemani'ko matxinadeak zelako ondorenguak ixango dauzan jakin-nayez jente gustijak urduri dagoz. Orain arte aŕo ta tinko egon dan Goebels jauna oztaz-ozta dabil. Von Papen, ostera, Goering eta Goebels baño garbijago geratu da. Iru jaun onein aŕteko gora-berak gaŕantzi andikuak dira.

Baña Alemani baŕuko gauzok itxi daiguzan, beste baŕi batzuk atzaldu daiguzan. France eta Alemani'ren aŕtian ixan diran goŕototasunak eztira makalak. Europa-guduba amaŕu zan ezkeroztik, egun bat baketan eztira egon. Hitler'en itzaldijetan-eta beti agertzen ixan da France'ganako goŕoto bixija. ¿Azkenengo matxinada au, be, France'k atonduba zala, ez iñuan, ba?

Europa'ko bakia gaĺduko zalakuan ixan diranak, izpaŕ jakingaŕijak daukez orain. Koenigsberg urijan, nacional - socialistak deritxoen alderdikoen batzaŕ nagosijan, ikeragaŕizko itzaldija entzun da. Ondorengo andijenak eukiko dauzan itzaldija. Rudolf Hesse jauna imperijoko ministrua eta Hitler'e nordezkarija da. Oŕen itzai gagozan. ¿Politika baŕiren bat erabiliko dau auŕerantzian Hitler'ek? Azkenengo egunetan eraiĺ dabezanak ixan ete-dira, ba, Europa'ko bakia nastuten ixan dabenak? Hitler'en alde, mueta bikuak egozan: ezkeŕtaŕ goŕijak eta eskumaŕak. Ezkeŕtaŕ goŕijok, etsairik txaŕenak ziran.

Ona emen Hesse'ren itzak: Matxinadan jagi ziŕanen erijotzea biarekua ixan dogu, doistaŕ ume ta emakumien bixitzak zainduten, S. A.'ko gudari zaŕak eztauke zer ikusirik oraingo biguŕkeri oŕeikaz. Saltzale ziranak, buruzagi ta jakintzu-ixun batzuk baño etziran. Zaŕak eta Fuhrer'a beti alkaŕekin ixango dira.

S. A.'ren kontra itz-egingo dabenai zigoŕ goŕijak lepalduko yakez. Gudari-ixan gintzanok, Hitler'en alde gagoz. Geure lateŕi au gaizkatu dauĺako bere gogoŕtasunaz. Ludi osuan egiŕen oi-ixan da Alemani'n egin dana.

Beste itz askoren aŕtian, amai-aldian, bakiatzazko berba onexek esan ebazan Hesse jaunak: Hindenburg jauna argijak. gudari-ixanak geure bakia zainduten dau. Italia'n, be, Mussolini'k beste oŕen beste egin darua. Pilsudski'k, be ,ondo zainduten dau Poslkako bakia. Eta gudari-ixaniko jaunak prest dagoz Europa'n gauza negaŕgaŕirik jazo eztedin.

France'ko gudari-ixanikuak zer gura daben ondo dakigu. Bakia. Ezkeunke gura, ba, guda baten baŕirio saŕtutia. Lateŕijak izkilu asko erosten diñardube eta Sarajevo'ren antzeko bat soŕtuko ba'litz. guda goŕiren bat soŕtuko litxake. Oŕegatik ots dagijet ludiko gustijai: Iñoiz eztozube oldoztu guda bat zer dan?

¿Gauŕ aŕte zegaŕik enazan mintzatu olantxe? Alemani'ko saltzaliai jaramonik egin ezegitiaŕen. Orain ots dagit, ludijak jakin dagijan Alemani'k bakia nai daula. Ez lenago pazifismo ĺelokerijakaz gabiltzalako, itz ori liberal eta sosialisten ametsa baño eztalako.

France'ko gudarijak ondo dakije emekoen gogua zelakua dan. Bakotxak zaindu begiz bere mugak, bestiarenak zapaldu -barik. Olantxe benetako bakia eukiko dogu.

France'gaz goraintsijak euki gura doguz. Alkaŕ ulertu ezkeruan, onura andijak ixango litxakez. Oŕixen bila gabiltz, ba. Olako bake-itunben bategaz, Europa'ko bakia jabonda egongo litxake.

Rudolf Hesse'ren itzok ikeragaŕizko zaratea atera dabe. Europa'ko guda nagosi-ostian, antzekorik ezta entzun. ¿Hitler'en politikea aldatuko ete-da?

Gauza andijak ikusteko garayan gagoz.

¡EUZKELTZALEAK!
ARIETA BITXIZALEA — Euskera
Marca registrada 99356
¡ARA ZUEN ORRATZA!
LEGAZPI, 10'n Urrutizkiña, 13.777
DONOSTIA

EIZARA'KO SUIZKILLU (ESCOPETA) OLEA
L. LEGARISTI Y COMPAÑIA
(Pla)cencia de las Armas) — GIPUZKOA SORALUZE (Pla

GAZI-GAZAK

¡Oŕeik "El Nervión,,'eko bakaldaŕ usteĺok urten yauskubek urteteko aŕañak ostera! Bildots otzan-otzanak lez ageŕtzen zuazan bastaŕ gustijetan. Uskuŕtzale "patentia" eurekanatuta yauken. Eurak bakaŕik zuazan Jaun-Goikua'ren eskutik ebiltzanak, ¡eurak baño besterik etzuan emen katolikorik!, eta orain... ¿eztok ageŕtu ba, Jaun-Goikua'ren eskutik barik masoyen eskutik dabiltzala, ta katolikuak barik, ur-goriŕan sartutako kaŕamaŕuak baño goŕijaguak dirala?

Ezagun zuan bai, oŕein zantarkerijak ikusi ostian, gauzonik etziraĺa. Oŕeik zikiñok, Judas txiki lagako yuek.

¿Igandeko EUZKADI'k izpaŕ onetzaz iñuanak, bakaldaŕ gau-txori gustijak euren zuloetatik atara ebazala? Gauza gustijak ageŕtu daŕezanian saŕtu be egin biaŕko yuek atzera, ta geyago ez urteteko saŕtu be.

Andijak entzuteko gayagozak.

卐 卐 卐

I irakuŕle; ire etxera lapuŕetan saŕturiko gaizto bategaz auŕez-auŕe auŕkiŕuko baintz, ta lapuŕak bere buruba galduta ikustian, berba labanakaz esango ba-leuska eztaukala ezer ostuko, ta ez eztutzeko, ¿ik eskaŕ ugarijak emongo ete leuskiozak bere berba labanakaŕik, ala, lotsabako galanta dala esanaz, makila erakutsiko ete euskijo, eure etxera lapuŕetan sartzeko ixan dauan auzarkerijagaŕik? Ziuŕ-ziuŕ nayagok, makila erakutsi ezeze, beragaz burutik bera emongo euskijozakaĺa, eztok?

Kestorak ez ba. Kestorak bestera egin yuek, Ardau-Araudija dala-ta gobernu aŕotzagaz azkenengo ixan daben arazuan.

Eŕi txikijak zapaldubaz euren lepotik bixi gura dauan españaŕ gobernu oŕek, len geure azkatasunak ostu euskuzan maltzuŕ oŕek, aŕatu dogun ardao arazua bide dala azkatasun arein azkenengo ondakintxuba ostu gura ixan yauskuk, eta ostu ezpa-yauskuk, euzko-udalak jaŕki yakozalako ixan dok. Bai, udalak jaŕki jakozanian, eztauskuzaĺa ostuko geure eskubidiok esan yuan gobernuak.

Eta orduban kestora denganiñok, lapuŕetan egin gura ixan dauskun gobernu oŕeri, lotsabako galanta dala esan biaŕian labankeriz beteriko uŕutidatza bialdu jotzen eskaŕ ugarijak, eskaŕ bijotzgetikuak emonaz.

¡Lapuŕekana labankerijekaz! ¡Oneik agindarijak daukoguzana!

卐 卐 卐

Karlataŕak baño bijotz ustelagorik eta mingain zikiñagorik iñok etzebaĺa, aintziña esan yuan norbaŕek eta egija edo dok.

Ara zer irakuŕi dogun edenaz idazten daben karlataŕ asteroko iguingaŕi baten:

"Recordemos esta efeméride de alta emoción patriótica.

El 3 de julio de 1898, el almirante Cervera telegrafió a Madrid: "Imposible salir a combatir". Al que se contestó: "Pero no imposible salir a morir". Y la escuadra española salió a morir, plenamente consciente de que iba a morir. Pero el deber lo exigía. Y España vistió de luto. Y todas las naciones tuvieron piedad de esta pobre España.

Y fué entonces cuando un hijo de la raza se alegró de este dolor y envió la felicitación al verdugo.

Todos sabéis el nombre de este sádico."

Bai, danok yakijagu zorijon ori bialdu ebanaren ixen maŕagaŕija. Euzkadi'k ixan daunik semerik argijena, bijotz-beriena, kutunena, maŕagaŕijena ixan zuan, zorijon ori Cuba'ri zuzendu eutsena: Arana-Goiri'ŕaŕ Sabin.

Jaun-Goikua ta bere eŕijaŕen, ebazan ogasunak, osasuna ta bixitzea bera be emon euzana, ta ez zubek lez, orain ageŕtu dan lez, Jaun-Goiko ta Abeŕi ori masoyen eskubetan laga gurarik dabiltzenetaikua.

¡O zantaŕ, zipotzale, endekaturiko alenak! Beti-beti Jaun-Goikua miñian darabiltzube ta ¿zelan auzaŕtu zarie Jaun-Goikua'ren besoetan gurutza deuna buĺaŕean ebala il eta gurutza-pean datzan gixon dontsubagaŕik, oŕ atzenian jaŕi dozuben lako itz zikiña esaten?

Emekiŕuriko txaŕi-zikiñak besterik eztok olakoik esaten auzaŕtzen. Eta ori guzuŕa auŕetik dala ganera. ¡Bai guzuŕa! Sabin'ak zorijon-uŕutidatz aretan ageŕtu eban poza etzuan ixan España'ren zoritxaŕagaŕik, Cuba'ren zorijonagaŕik baño -ta.

España'ren bustaŕipetik azkatu zan lez, beste edozein lateŕi-lapuŕen menbetik azkatu ba-litzok be, bardin poztuko zuan Sabin, norperan abeŕi-azkatasunaren egaŕiz dabilan edonok, beste abeŕi-azkatasunak pozik ikusten yozak-eta.

Baña zubek ezin ikusi. Gixon endekatubak, maŕasun baŕutijan dagozan gauzak ezagutzeko duin eztozak-eta.

Txaŕikortan egoteko baño.

ABELETXE.

Euzkotar umien aldez

Españar-ikastola ta Euzko-ikastola

"Ume gogoa oñaztaŕiaren zartadea da; kimoa ta lorea, abestia ta usai gozoa."
(Prudencio Migoni.)

Gauŕ egunean españataŕ ikastolak ere asko auŕeratu dute, Ume-iztia Jakintzapean dabil, eta ikastoĺak ikastolak izatera eldu dira.

Elade'taŕak esan oi zuten ikastola, umea poz-pozik juan eta orduak alai ematen dituan leku bat dala. Gorputza atzedendu ta gogoa landutzeko lekua, eta egia esan, gauŕko ikastolak, eĺadetaŕak nai zituzten bezelakoak dira.

Ez baña ume danentzat, ez gure euzkeldun umientzat, eŕdeldun umientzat baizik.

Gauŕ egunean bertan, aunitz ume euzkotaŕek estura ta laŕitasunetan igarotzen dute eguna ikastolan, euren buru gaxoa, alkaŕen auŕka dauden gogayak sortzen diozkaten guda ankeŕean urbildua duteĺako; alegiñak egin aŕen irakasleak esaten dizkioten gauzak ezin uleŕtu dituztelako, euren espan eta mingañak irakasleak eskatzen dioten bezela eŕderarik erabili ezin dutelako.

Gauŕ egunean bertan aunitz ume euzkotaŕek, ainbat bideŕ euren irakaslien aotik ¡kirten! ¡abere! ta oŕeĺako itz gozoak entzun beaŕ izaten dituzte, burutsuak eta argiak izanik.

¡Oi, nik ezagutzen ditudan Agiŕesakona'taŕ, Ibaibaŕiaga'taŕ, Lejaratsu'taŕ, Beŕojalbiz'taŕ, Loitzate'taŕ eta beste aunitz mutiltxo emen ba'leude, esango leukie zenbat izerdi bota beaŕ izan zuten ikastolan ibili ziran bitaŕtean!

卐 卐 卐

Nik lenengotik izan nuan ikastolara egun batean, guztiz laŕituta etoŕi zitzaidan eŕi beŕtako mutikoen ikastolara etoŕi zan Cordoba'ko irakasĺea eta ben-benetan esan ziran: —Ez dakizu nere ezbiaŕa zenbaterañokoa dan. Nere ikastolako ume guztiak burugabeak, edo soroak, edo dira. Ara, iru egunean eskubia ta eskeŕa, zein alde diran ez dirate ikasi. Ene Jaungoikoa, onelakorik ez! Nola erakutzi beaŕ ditut nik, Zenbakiztia, Luteliztia ta beste ainbeste gauza?

—Okeŕ zaude, jauna, erantzun nion; emengo umeak Fuente Orejuna'koak (1) baño ondotxo ere buru argiagodunak dira, ta eskubia ta eskeŕa zer diran zuk erakutzi beaŕik ez dute. Nai al dezu nik galdetzea?

卐 卐 卐

—Nik ez dakit zelan orain aŕte ez degun Jaungoikoaren deadaŕ au entzun: ¡Euzkoeŕia!, Nun dituzu zure umeak? ¡Euzkotaŕok! ¿Zer egin diozute zeuen auŕai?

Egia esan, baldin deadaŕ zoŕotz au entzun ba'genduan ere, ez gendun erantzun ganora aundidunik eman aĺ izango. Gure erantzupenak onelakoak izango ziran.

"Jauna, ba, gu geuk ez degu Ume-iztirik ikasi ta euzkotaŕ umiai euzkotaŕ umiai euzkotaŕ asiera ematea ez dagoala ondo esaten digute oŕetarako dauden lekaime ta lekaideak (2) eta beststik asiera uskurtzalea ematen diote ta euren eskuetan utzi ditugu."

"Zuk eman ziguzun euzkera onek ezertarako balio ez duala esaten digute ta, euzkerea len-bai-len astu dezaten erdeĺ ikastoletara eraman ditugu."

"Ikastola bat sortu ta eultzitzea asko kostatzen da ta, diru gabeko ikastoletara eraman ditugu gure auŕak, naiz ta Jaungoikogabeak izan, naiz ta euzko-gogoaren etzai amoŕatuak."

卐 卐 卐

Ia ordua izan da euzkotaŕok lozoŕotik esnatzeko. Ia ordua izan da, euzko-abeŕtzaliak beŕogei ta amaŕ urte abetan egin degun gauzarik aundiena egiteko. Ia ordua izan da Euzko-Ikastola sortzeko.

Eta ordua da, naiz ĺekaideen eta naiz lekaimeen, naiz Jaungoiko dun naiz Jaungoiko dun naiz Jaungoikogabeko, gure euzkeraren auŕka, gure abenda izatearen auŕka, ta gure euzko-gogoaren auŕka lana egiten duten ikastola oyetatik gure umeak atera ta abeŕtzaletasunak soŕtu dituan Euzko-Ikastoletara eramateko.

Baldin alde guztietan esaten degun bezela, abeŕtzaleak ba'gera beintzat.

AŔITOKIETA

(1) Andik etoŕia bai zan.

(2) Erantzun auxe gutxi gora bera eman zioten Bizkai'ko eŕi bateko ĺekaimeak bertako Udalari ume euzkeldunai euzkeraz erakustea eskatu zioene an.

TOLOSA

TOLOSA'KO EMAKUME TA EUZKO-BATZOKIKO BAZKIDIAI

Aguŕ abeŕkide: Il onen 15'anko eratu degun jai aldi abeŕkoyaz jabetu zera noski.

Tolosa'ri dagokion bezela bikaña izan beaŕ du jai onek. Eta au irixteko Tolosa'ko abeŕtzale guzion laguntza beaŕ nai ta ez. Zurea ere bai irakuŕle.

Ez dizugu lan aundirik eskatzen.

Oraingoz euzko-ikuŕin dun oyaĺik ez badezu gertutzen asi. Batzokian salgai arkitzen da, merke asko gañera.

Dirua ematea zail bazaizu ez estutu oyal zuri bat erausteko paperezko ikuŕiñak utsean emango zaizkizu.

Aŕen, abeŕkide, gutxi eskatzen dizugun ezkero eskeñi Abeŕiari leyaltasun ta gogo onez.

BATZORDEA.

Zabaldu
- -"Bizkaya
por su independencia"
Difundid

Euzkar-sukaldia

—I, Muno, aizkide ori: ire etxian-eta auzotegijan euzkaŕ-sukaldia ¿zelan yabilk?

—Ara Otoyo, i bixi azan tokijan lez, gitxi gora-bera an be, ilun eta motel yabilk euzkaŕ-sukaldia, Madrilgo "Hogar Vasco,,'rekin aĺde askorik eztabela. Altza-eguŕagaz, areitz-ipuŕdi ta gastaña-muŕakaz eindako ikatza, ¿zelakua ixaten dan ba-dakik?

—Zeozer bai: ona dalakuan gurien be, oŕetaiko eguŕ-ikatza erosi, ta auzpuagaz beti puzka ekinda be, surik aŕtu-eragin eziñik ibiĺten dozak. Auzpue albora ein orduko, bertatik ostera be sua amatauta; "¡por eso!" sukaldia be beti ilun eta lapikua edo dalakua egosge. Bein baño saŕijagotan gure andria zoraturik ikatz gauza eztan oŕekin ibiĺten dok didaŕka: ¡Oi! aretxadaŕ edeŕaren edo aŕte-ikatzaen su-naya!

—Orixe beroi jazoten dok nunbait euzkaŕ-sukaĺdiagaz be, Otoyo; altz-eguŕagaz, aretxonduen sustaŕakaz eta eguŕ zantaŕ gustijakaz eindako ikatzena. Sutara botaten danian, suak ezin ondo oratu ikatz txaŕari, onari oratzen dautson amuŕuagaz lasteŕ-lasteŕ putz apuŕ bat egin orduko.

—Olantxe da Otoyo, ixan be. Gauza aundijetan ezpa-da, be, ludiko gixonen baŕi bijok yakijaguk apuŕ bat; euzkotaŕ geyenen baŕi be, beste apuŕ bat bai. Euzkaŕ-sukaldia otziŕu, ixoztu eta leitzen dabien euzkotaŕ altzezkuak nortzubek diran be, apuŕ bat bai-yakijegu. Baña ¿zer da eŕia, Otoyo, gure aŕtian?

—¡A Muno laztana!: euzkaŕ-sukaĺdia berotu leyan eguŕ-ikatza edo aŕi-ikatza bilatu; putz-eginda suba eŕez aŕtzekua.

—¡A, Otoyo!, iñun be ezta saltzen gitxi bat baño; ogi onetsija baxen uŕi dago euzko-toki gustijetan berokai edeŕ ori.

—Ori ba, Muno, ¿zek egiŕen dau?

—Lentxubago eztogu esan ba, Otoyo, bijok ludiko gixonen baŕi ta euzkotaŕ geyenen baŕi apuŕ bana bai-dakigula? Begiŕu ondo, ta gure ixan-ixango gustija ortxe dago euzkaŕ-sukaldiatzaz. Sukalde ori, "eguzkija nora, zapijak ara" dabiltzazan euzkotaŕakaz iluna ta otza beti ... da, eñaĺak putz eginda be.

—¡Kontxeta, Muno!; upia ba... aundijagua diñostak. Neure aŕtian... ten ik diñoana, neu be iñoz egono... goibeldubaz. Olantxe dok oldozt... ixen be. Gure urdalaren bultzaka... ŕiŕan olikoxiak dozak iñungo aldi... dari eldu umauak edo sagaŕ gozo... kiŕekuak ikusi ezketiño. Oŕeĺako... rija aberatsik, eguzkipian etxagok.

—Eztagon lez, Otoyo! ¿Zer dala... dok, eguzkirik-eguzki beti ibiltia, e... udarik-uda ibiltia lez? Ludiko zori...

—Muno, ene ori, geldi-geldi zori... ta oŕek gauzok, ixenez eta egiŕez... -sukaldiaren jabe ixatia be, altzezk... tan euzko-seme batentzat, ezta zori... txikija, madari-umauben eta sagaŕ-... ordez, gerizpia, espetxia ta epaika... sijak ikusi biaŕez auŕkitzen ba-da b... di-sukaldia naibagez eta negaŕez...

—Ba-dazaut, Otoyo, Baña "e... nora, zapijak ara" euren bixiöidia... burutzat daukien euzkotaŕakaz... dok. Euzkaŕ-sukaldiaren kaltez... ñak ba-lira be, gaiztuagorik ezin... euzko-seme asko diran baño. Euzk... kalde, benetakuaren aĺdez gagozan... da gogoŕa egin biaŕ yuaguk bera... ta euzkerea bixirik auŕera aterate...

—Ez ikaratu Muno; Jaun-Goi... laguntzaz zeozer ixango dok. Ga... kotzaz euzkaŕ-sukaldia otziŕu ta i... dakusgu gauŕ; eta euren aŕtian, eu... tzaz be bai. Norbaitek iŕantzen ba-... "Hogar Vasco" euzkeraz zelan esa... dan, sorbaldak gora, ta eztakigu... ¡Negaŕgaŕija da au gero!

—Ezin negaŕgaŕijagua, Otoyo. ... len "Hogar Vasco" ixenaz etxe... dau ebenian euzko-semiak, "euzko-... de" edo "euzkaŕ-sukalde" ixenda... 'lebe, itxasoztijak "hogal" esan... lez, euzkotaŕak eta ainbakuak "e... kalde" etxia gauŕ esango eutsien.

—Bai, Muno; euzkera gauzetan... batzuk garala esanaz, gustija yagok... ŕuta.

MATA...

¡Euzkadi'ko aur Euzkaldunei!

Toĺosa'ko Abeŕi-Etxean aldunei omenaldia dala ta, larunbaten egingo dan aur jayerako, Euzkadi'ko neska-mutil guzien aŕtean txapelketa bat eratzen da. Bi malakoa izango da.

Lenengo mala.—10 urtetik 14 bitaŕteko neska-mutilak. Iru gai izango dira: 1º, Euzkadi'ko edestiaren edozein gertaera. 2'gn., Euzko-ipui bat edestu. 3'gn. maŕazki bat. Lenengo ta bigaŕen gayetan gutxienez iru kuartila bete beaŕ dira.

Bigaŕen mala.—10 urte bitaŕtekoentzat. Bi gai: 1'goa, edozein gaiz idatzitako ipuia. 2'gn. kuartila bat gutxienaz. 2'gn., maĺazki bat.

BALDINTZAK

1. Lanak EUZKERAZ beaŕ dira.
2. Paperean alde batetik idatziko dira. Lenengo malakoak tintaz ta bigaŕenak al badute
3. Idazkera al dan garbiena ta txukunena egin bezate.
4. Lanak datoŕen ostegunerako, iĺaren 12'gn. arte bidaĺi diŕezke, zuzenbide onekin: Auŕ jaia. Emakume Abeŕtzale-Batza. Abeŕi-Etxea. Tolosa.
5. Irakasle edo gurasoen eskua nabaltuko balitz ez lirake txapelketan sartuko.
6. Maŕazkiak edozein gaiz egiñak izan ditezke; oleo, pastel, akuarela, arkatzoz, tintaz, papermargotuak moztu ta aĺkaŕi antziaz ta a.
7. Jaŕera txukunagoa izan dezaten neuŕia 25 por 35 cm. izango da.
8. Nai dituen maŕazkiak erakusteko batzoŕdeak eskubidea izango du.
9. Lanak, izenorde batekin izenpetu beaŕ dira. Sobre itxi baten baŕuan, bakoitzaren izena, eta zuzenbidea, ta onen azalean lanen azpian jaŕi duten izenordea. Sobre au ta lana beste sobre batean itxi ta Tolosa'ra bidali.
10. Ikustaroa bukatu ondoren batzoŕdeak iragaŕiko du jasotzeko epea. Garaiz iasotzen ez duanak jabetasuna galduko du.

Lenengo mala: Gai bakoitzeko onenari, 25 lauŕleko, ta bigaŕeneidi, 15 lauŕleko.

Bigaŕen mala: Gai bakoitzeko onenari, 15 lauŕleko, ta bigaŕeneidi, oroipen bat.

OTXANDIANO

ZOŔA-ZOŔ.—Nere zoŕa eŕiŕaŕai ordaindu biaŕ dautsetala-ta nabil. Oñengoko izpaŕen gerostik gaurkoak.

VICH.—Eŕi au aitatu ezkero "Balmes" pilosopa jatoŕa uŕez-auŕ dogu, jayoteŕia daĺako. Gogoratzen yakuz bere idazkiak, bere esanak. ¡A! ¡Balmes! Danoen eredu, izpilu garbi, berarizko idazle. ¿Nok ez dauz, zure idazki onak, amairaño irakuŕi?..

Nik ez. Zure idazkiak... idazki guri-guriak, mamintsuak; baña nik, egiz, ezin iruntzi dodaz. Pilosopokerizko arlabana aztuna da.

BULTZIJAN.—¡Taŕagona, diez minutos!

¡Eŕekondo! an agiri dan neskatilia eŕiŕaŕa dok. —¿Urkiola bidian zapatak uŕetu ta onuntz etoŕi zara? —Bai, gauŕ beintzat emen naz. —¿Bazkaldu ete-dozu? —Ez. —Guazen ba "dinin kar'era".

¿Desean vinos? —Sí media corriente. —Bazkaldu dogu ta kontuan ipini deuskube "media botella, 1,00 ptas." —¡Ze demontre dok au! Au ikusi ebanian ¡cúmplase la ĺey! didaŕ baten asaŕe esan neban. ¡Cúmplase ĺa ley! —Guk eraniko ardaua dubakua da, legiak alan diño. —Ezetz esaustien. Dubakua beste ardau mota bat ei-zan.

Gañera esaustien alako ardaua ordainduta be edontzi bi bete ezin giñukeĺa edan Bat duban bai, baña bi, ordainduta beiz. Bilduŕ zarie bi edanaz istanda (e...tau) egingo ete dogun ¿ezta? e... neutsien. ¡Ze ardau mota ete-da!

CONRREU.—¿Nok eregi ete-da... so au Madrid'en? —Cambo'k. —Ni... neban, bere egiketak agiri-agirik... relako, gixon au abeŕtzale samart... la. Baña oinguan laprast egin dau.

Emen Katalunya'n, "Esquerra" ... "Lliga" dira alkaŕ ikusi eziñerañ... tzen dabienak euren eztabaidetan. ... tietako" auteskundietan "Lliga" ixa... garale. Katalunya'koetan ordez "E... rra". "Generalitat'en" lenengo ba... tan, "Esquerra'en" jaramon ezaitik... "Lliga" aldendu zan andik eta... ezta bertaratu. "Esquerra" au gaitik... mamotu ta gauŕ be gogoŕ darautse... lanari. Gauŕ lege bat, bijaŕ beste... aizkenerako "La ley de contrates de ... rreu" argiratu dau.

Onek "Lliga'kuok" aberaskitxoak... bai dira-ta, ezin iruntzi ixan dabe "... rreu" ori. Generalitat'en ¿zer egin? -... obez eurek diñoandik eta Madrid'era... biaŕa ixan dabe. ¿Madrid'era aranta... ataratzen? Ara emen Cambo'en lap... dia.

Zuk irakuŕle zeure etx... juan-et... zeure etxian atonduko dozuz ¿ezta? ... ba'dozu etzara juango zuzutzgilia... ¿ezta? Ba Cambo'k etxetik urten ta a... ŕitik ibili da Katalunya baŕuko a... zuzentzen. Ze nastia atara dau Ma... 'en ¿e?

Generalitat'en, madridtaŕai jaramon... rik, serijo-serijo auŕera duaz. ¿Noz a... Madrid'taŕoi lau-orien ikara ori ke... ezpayake ¡nok daki, noz aŕte?

ANBOTO

GERNIKA

EUZKEL IXENAK.—Miren Beg... Seijo Endeiza'taŕ Todor eta Obieta... Miren Gurutze'ren alabatxuari.

Aitama-besoetakoak Seijo Zaŕand... etxea'taŕ Gabin eta Aboitiz'taŕ Polen... umetxuaren aitita-amamak izan ziran...

—Jon, Luno'ko Jayo'taŕ Toma eta... daguren'daŕ Madalene'ren lenengo se... txuari.

Besoetan Bidaguren'daŕ Kepa eta ... 'taŕ Katalintxuk artu eben.

Zorionak bitzuoi.

GORENGO MALAK.—Laureskin... tesketetan goren-gorengo malak artu... emakumetxu lirain dan Anzorandi... Miren Maitenak. Zorionak.

BELU-MENDI...

URDULIZ

EUZKEL - IXENA. — Etxegarai... Anastase ta Etxebaŕia'taŕ Ingartzi'k... batxu bat ixan dabe, ta ugutzau dabe... onetako txadonan "Maite" ixen edeŕa... Adizkide oneri zorijonak damotsagu... roen lenengo alabatxuari oŕen ixen ed... ipiñiegaz geure ele maitia goratzen... beĺako. Abeŕtzalien egin beaŕa orixe... euzkel-ixena ipiñi euzkera irekatsi ta... erabili. Zorijonak baŕiro be.

TXIBER...

Erakutsi
- -"Bizkaya
por su independencia"
Mostrad...

Aranburu'tar ...
AZAL ETA TXIZ-BIDIAK
Fueros 5, 3.º, DONOST...